



## **2014KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko otsailaren hogeita batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2014ko otsailaren 7an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 94 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA SEI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA EURO ETA BEDERATZI ZENTIMO (26.651,09 €)takoa eta 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 6 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA HAMASEI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA LAUROGEITA LAU ZENTIMO (76.591,84 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

### **III.- TEILATUA KONPONTZEKO SAN BENITO IKASTOLARI DIRULAGUNTZA.-**

Udal honek dirulaguntza aurreikusita dauka San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren teilatuaren konponketarako.

San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren teilatuaren konponketa gaur egun eraikinarren erabiltzailea den San Benito Ikastolak egin du eta aurreko bilkuran emandako dirulaguntzarako aurkeztutako zurigarriez gain egindako gastuaren zurigarri gehiago ekarri ditu, "segurtasun-soka" izenez ezagutzen den teilaturako segurtasun instalazioa egitearenak hain zuzen, aurrekoan bezala udal honek lan horiengatik dagokion dirulaguntzaren ordainketa egin dakion.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, San Benito Ikastolari, San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren teilatuan "segurtasun-soka" instalazioa egiteagatik, BEDERATZI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (9.587,33 €) dirulaguntza ematea erabakitzen du.

### **IV.- EUSKARAKO, HEZKUNTZA ETA ZERBITZUEN SEKTOREKO DIRULAGUNTZAK.-**



Euskara, Hezkuntza eta Zerbitzuen Sektorea Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Goierriko Euskal Eskolari "Gerriko Ikerlan Beka" ikerketa bekarako diru-laguntza.-

Goierriko Ikerlan Bekaren 2013ko sariketa gastuei aurre egiteko BOST MILA EURO (5.000 €)ko dirulaguntza onartzea.

Goierriko Euskal Eskolari Mintzalaguna Proiekturako diru-laguntza.-

Mintzalagun proiektuari 2013ko urtarriletik ekainera bitarteko epeari dagokion bost mila (5.000 €) euroko diru-laguntza ematea.

Lazkaoko Merkatarien Elkarteari dirulaguntza.-

Lazkaoko Merkatari Elkarteak 2013. urtean aurrera eramandako jarduerengatik egindako dirulaguntza eskaera ikusi eta aztertu ondoren eta Euskara, Hezkuntza eta Zerbitzuen Sektorea Batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Gobernu Batzordeak, aho batez, MILA SEIEHUN ETA HOGEITASEI EURO (1.626 €)ko dirulaguntza ematea erabaki du.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartzen du:

Jundajo Txarangari dirulaguntza.-

Jundajo Txarangari, 2013an garatutako jarduerengatik BI MILA EURO (2.000 €)ko dirulaguntza ematea.

Zawopi Elkarteari Jaiotza Biziduna eta Astotxoren antolaketagatik dirulaguntza.-

Zawopi Elkarteari, 2013ko abenduaren 25ean jaiotza biziduna eta 2014ko urtarrilaren 12an Astotxo Egunaren antolaketarengatik, BI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA BERROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (2.852,51 €)tako dirulaguntza onartzea.

Kontutan izanda 1.500 € aurreratu zitzaie, orain ematekoa 1.352,51 € izango litzateke.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta sei direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

